



Debarroan barrena

Menditik hasi ta itsasora
heldu gara lau urtetan,
aurkikuntza ikaragarriak
gure landa ederretan,
artzaina izaten saiatu gara
Arantzazuko larretan,
eta Lasturren ez da sortuko
talo hoberik mendetan.

Taloak bapo jan eta gero
jolasean zezen plazan,
baina ematen zuen lur harek
geundela gure hondartzan,
zezena etorri eta guztiok
ezkutatu ginen maltzan,
eta orduan ikusi gendun
suge eder bat baratzan.

Arrantzaren munduan murgildu
gure herri ederrean,
marinelekin hizketan jardun
gendun atzo atsaldean,
baina salmentan hasi ginen ta
arrainik ez bapatean,
beste lagun bat azkarragoa
izan zen nire aldean.

Miren Galarraga